

Izenburua: Arima eta Bihotza

Sinopsia:

2060. urtean gaude. A eta B elkarrekin bizi dira Lezoko etxe batean. B azken boladan aztoratuta dabil A erabat alferfuta dabilelako, ez du apenas etxeko zereginik egiten, gero eta narrasago, dezente (edo indezente) alprojatuta. B sumintzeraino nazkatu da bestearen jokaerarekin. Izan ere, B sinistuta dago A robota dela, berak bere poltsikotik erositako robota, etxeko zereginak egiteko eta beste hainbat kontutan lagungarri izan zedin. A, berriz, pazientzia galduta dabil azken aldian, B robota erosi zuen orain urte erdi etxeko zereginetan lagundu ziezaion, baina egunak dira, akatsen bategatik edo, B sinistuta dagoela pertsona normala dela.

Pertsonaiak:

Antzezlan honetako bi pertsonaiak A eta B dira, izan zitezkeelako Asier eta Begoña, edo eta Ane eta Bittor, izan zitezkeelako ere Ane eta Begoña, edo eta Bittor eta Asier, izen horiek 2060. urtean oraindik ere erabiliko badira. Edozelan ere A zahartxoagoa da B baino.

A-k 60 urte inguru ditu, itxura narrasa, zarpaila. Argia, adinak ematen duen patxada baten jabe. Neurritz hitz egiten saiatzen da uneoro, haserretzen den arte.

B gaztea da, 20 urte inguru. Bizia, erretxina, laster aztoratzen dena. Noblea, “bihotz” onekoa, justizia zalea, erromantikoa, pasio premia izugarriaz.

Arima eta Bihotza

A etzanda dago sofan, nagiak hartuta, arreta mugikorrean iltzatuta. B sartzen da, erosketak egitetik dator poltsa pare batekin. B-k minduta begiratzen dio A-ri, haren nagikeriak zeharo nazkatuta dauka. Poltsak lurrean utzi eta telefono deia egiten du bitan pentsatu gabe.

B: Bizi-Lasai Robotik enpresa? Aizue, ez nago batere konforme egin nuen erosketarekin. Saldu didazuen... Nola? Et, et, et...nik pertsona normal batekin hitz egitea nahi dut. Ez dut ezer roboten kontra, baina uste dut hobeto ulertuko didala. Ze robotofobia eta zer arraio!!! Ezetz ba! Grabatu nahi beste, zer ez ote den grabatzen gaur egun!! Saldu zenidaten modelo erabat okerra aterata da, ez du ganorazko ezer egiten, egun osoa potrojoan ematen du. Orain ere sofan botata dago lotsagabea!

A-k hasperen egiten du asper usainean baina bereari eusten dio, B-ren purrustadei kasurik egiteko inolako asmorik gabe.

B: Nik zera nahi dut...ez, ez dut dirua bueltatzerik nahi, robota aldatu nahi dut. Horixe. Lasai asko biziko nintzela esan zenidaten, bera arduratuko zela guztiaz. Dirutza ordaindu nuen!! Ze teknikari? Eta bitartean ordezko bat edukiko nuke? Uf, ez dut uste hau bi egunetan konponduko denik, honek sakoneko konponketa behar du. Bateria berria karga-karga eginda behar du honek. Sekula ez dut ikusi

horren robot alperrik! Ikusiko bazenute honen kuxidadea!! Ez ditu hortzak garbitzen. Azazkalak beti luze, bizarra ere egiteke askotan.

Halako batean, A sofatik supituan altxatzen da, B-ri telefonoa eskutik kentzen dio eta bera hasten da telefonotik hizketan.

A: Norekin ari naiz? Barkatu endredoa andereño baina honek ez du ez hanka eta ez bururik. Deitu dizuen txoriburu hau robota da, bera da robota!! Azken egunotan gauza arraroak egiten hasi da, pertsona normal bat dela sinistuta dago!! Baina zer arraio sartzen diezue programazioan modelo berriei?! Jasanezina da! Atzo bertan Beethovenen sinfonia bat jotzen aurkitu nuen, eta bera zela piezaren sortzailea esan zidan! Eta herenegun pizza bat jaten aurkitu nuen gizajoa!! Pizza bat!! Ez du urdailik eta!! Bai ba!! HHFTP modelo bat da. Arazoak eman dizkizuela? Ba hori erosi aurretik esan behar zenidaten. Aizu, merkeena ere ez zen...Konponketa erreza? Berrabiarazi eta listo? Hain erreza balitz...A, ahaztu zait, atzo komunean sartu eta ez dakit zertan aritu zen intziri batean... Hau jasanezina da!!! Hurrengoan salaketa bat jartzeko deituko dizuet!! (Telefonoa eskegi)

B: (*Ikaratuta*) Erotu egin zara!!!

A: Ideia ona izan duzu, laster konponduko dugu auzia. Eta orain batu hauek guztiak eta zoaz afaria prestatzera.

B: Ez duzu mugarik!! Zuk egin beharko zenuke! Zuk! Ez nik! Pitzatuta zaude! (*bestearengana hurbilduz*) Berrabiarazi egingo zaitut.

A: Geldi hor! Ez hurbildu! Kieto parao!!! Baina zer arraio sartu dizute ordenagailu horretan? Nor zarela uste duzu? Orain urte erdi erosi zintudan, fabrikatik atera berria zara! Robot bat zara, robot moko bat!! Eta ez modelorik garestiena, portzierto. Robot simple bat, etxeko zereginak egiteko, konpainia egiteko, musika jartzeko, nire ordezkidatzeko, testuak idazteko, maletak eramaten laguntzeko... (*Ondorengo esaldiak biek batera aldi berean esango dituzte*): ...zalantzak argitzeko, jatekoak prestatzeko, filmak aukeratzen laguntzeko, antzerkia ikustera nire ordezkioateko, txiste onak kontatzeko.

B: ...zalantzak argitzeko, jatekoak prestatzeko, filmak aukeratzen laguntzeko, antzerkia ikustera nire ordezkioateko, txiste onak kontatzeko.(...) Ikusten? Atzo esan nizkizun hitz berberak errepikatzen ari zara!! Ni izango bazina bezala, baina zu ez zara ni!!! Ez zara pertsona bat, ez zara jabetzen? Ia, esan, nortzuk ziren zure gurasoak?

A: Pilar eta Agustin.

B: Bueno, hori erreza da asmatzen. Zein da duzun oroitzapenik aspaldikoena?

A: Ez dakit ba...

B: Ez egin tranparik. Bota pentsatu gabe.

A: Amonak bizkarrean azkura zuenean azka egiten nionekoa.

B: Deskribatu ahal baduzu.

A: Zer da hau, galdeketa bat egin behar didazu gainera?!

B: Deskribatzeko!!

A: Amonaren azala lodia zen, biguna, azazkal azpitan geratzen zitzaizkidan haren epidermisaren arrastoak. Gogoan dut haren irriñoa, azkurari plazerra gailentzen zitzaioneko une klimatikoan. “Hor, hor”, esaten zidan, “beherago orain, geldi hortxe”.

B: Zenbat urte zenituen orduan?

A: Zortzi bat, bederatzi akaso...

B: Non kokatzen zinen zu bizkarrean azka egiten zenionean?

A: Nola non kokatzen nintzen? Haren atzean, bizkarra ongi ikusteko moduan.

B: Eta orduan, nola da posible haren irriñoa ikustea?

A: (...)

B: Ikusten? Asmatu ditzakezu nahi beste oroitzapen, pertsona normalok ere badugu joera hori, baina zure kasuan guztiak dira irrealak, programazioak egiten dizun tranpa bat besterik ez da. Utzi zu reiniziatzen eta dena konponduko da, akabo arazoak, pozik biziko gara biok. Erabat errealizatuta sentituko zara. Ez al zara aspertzen ezer egin gabe egonda?

A: Hori ez da zure arazoa!

B: Nola ez ba?! Nazka-nazka eginda nago zure zereginak egiteaz. Mila gauza ditut egiteko.

A: Adibidez?

B: (...)

A: Esaterako?

B: Ba...musika konposatzea izugarri atsegin dut, eta ona naizela esango nuke gainera.

A: Bai gero! Beethoven bezain ona!!

B: Ez dut Beethoven plagiatu!

A: Noiztik duzu musika zaletasun hori?

B: Duela hilabete hasi nintzen.

Beethovenen 9. Sinfonia entzuten hasten gara, D Minor, Opus 125.

A: Eta hau sortu duzu hilabete bakarrean?

B: Berezko sena dugu batzuk. Talentua esaten zaio, baina hori robot batek ezin du ulertu. Ederra da, ezta?

A: Oso. Gauza bat egingo dugu. Zuk berrabiaraziko nauzu ni, ahal baduzu, eta nik berrabiaraziko zaitut zu. Horrela biok konforme.

B: Ados, baina nik berrabiaraziko zaitut zu aurrena, ados? Horrela esan didazu, ezta?

A: Jakina. Arazorik gabe. Baina ez baduzu lortzen gero ni saiatuko naiz zurekin.

B: Zer esan nahi duzu?

A: Hori da bidezkoena, ez? Nahiz eta zuk lortu ez ni berrabiaraztea, nik aukera izango dudala zurekin saiatzeko, eta ez duzula inolako eragozpenik jarriko.

B: Ni engainatu nahian zabiltzala uste dut. Pertsonok badugu susmoa pizten digun zentzumen berezi bat...

A: Nahiago duzu nik zu berrabiaraztea aurrena eta gero zuk ni?

B: (*Zalantza betean, mesfidati*) Joder, joder...ze zaila den pertsona normala izatea, susmo txarra hartzen ari naiz. Ni engainatu nahian zabilta. Baina zu ez zara ni baino azkarragoa, ez horixe, zu robot triste bat zara. Triste eta baldarra. Triste, baldarra eta alferrontzia. Bakarrik egon nahi dut, zoaz, eraman gauzok sukaldera. Hori egiteko beste izango zara, ala?

A-k ondo pentsatu ondoren, eta gogoz kontra dirudien arren, gauzak batu eta badoa. B bakarrik geratu da.

B: Egunero petralkeria bera jasan behar izatea ere!!

Bat-batean, inspirazioak hartu duelako edo, orkestra zuzendariaren plantak egiten hasten da eta Mozarten Requiem D Minorrean entzuten hasten gara, K 626.

B: Joder, ze konpositore ona naizen!!

A bueltan dator, paper batzuk eskuetan dituela. Musika eteten da.

A: To, irrakurri arretaz hau.

B: Zer da ba?

A: Zure instrukzioak, iritsi zinen kutsa berean zetozen. Oraintxe bertan aurkitu ditut zure ohe azpian.

B: Redio!! Tematia zara ba!!

A: Irakurri.

B: Honek ez du ezer esan nahi, zuk sortutako dokumentu faltsuak izan daitezke.

A: A bai? Ba begira, hor dio mando honekin lortu dezakedala, adibidez, zu isilaraztea.

B: Ja!! Onartu behar dut dagoeneko ezin nauzula gehiago harritu...

A saiatzen da mandoarekin bestearen jarduna isilarazten, baina ez du lortzen...berehala.

B: Zure irudimena infinitua da, jakin behar duzu kariñoa nizula, familiako parte sentitzen zintudala, hain otzan eta jator, baina dagoeneko...

Isiltzen doa erretolika erabat mutu geratzen den arte, nahiz eta B-k hizketan jarraitzen duen ez da ezer entzuten. Bat- batean “hitz egiteari” uzten dio, jabetu da alperrik dabilela. A-k eskura ematen dizkio argibideak. B irakurtzen hasten da, eta jarrera apaltzen. Sofan eserita geratzen den arte, lur jota, erabat onartuta oker zebilela, ez dela gizasemea, robota baizik.

A: Eta begira beheko argazkia, hori zu zeu zara, kutxa barruan sartuta. Berri-berri eta distiratsu.

B zerbait esan nahian dabil baina ezin ezer ulertu, mutu ari delako. A ohartu da eta bolumena igo dio.

B: Ezin da izan...Ni...

A: Zu HHFTP modelo bat zara. Arazoak ematen hasi den modelo bat. Lasai egon baina, berrabiarazi egingo zaitut eta hobeto sentituko zara.

B: Uff. Ze rolo txarra, ez? Sentitzen dut nire lana ongi egin ez izana. Barkatu.

A: Lasai

Frédéric Chopinen Nocturne Op. 9 No” entzuten hasten gara.

B: Hau ere ez da nirea?

A: Frédéric Chopinena da, Nocturne Op. 9 2a. Oso ezaguna.

B: Joder... Ze lotsa. Ez dakit zer gertatu zaidan.

A: Batek daki.

B sofatik altxatzen da ziztuan.

B: Barkatu, etzan zaitetz lasai. Nahi duzu zerbait ekartzea? Afaria prestatuko dut?

B negarrez hasten da.

A: Baina, ze kristo! Negarrez ari zara?

B: Mesedez, ez nazazu berrabiarazi. Txintxo-txintxo egingo ditut zeregin guztiak, baina ez ni berrabiarazi, mesedez, arren. Ez dut beste robotak bezalakoia izan nahi, denak berdinak, denek gauza bera buruan, beti irribarrez egon behar hori, beti perfekto, Dena azaleko, sakonerarik gabe, arazoei aurre egiteko drogatuta egin izan bagintuzte bezala, sentiberatasun aminirik gabe...

A: Seguru zaude robotak deskribatzen ari zarala?

B: Nor bestela?

A: Gero eta pertsona gehiago sartzen dira deskribatu duzun multzo berean. Laster zaila izango da batzuk zein besteak bereiztea.

B: Nik ez dut halakoa izan nahi. Ez nazazu berrabiarazi, mesedez. Esan, mesedez, ez duzula egingo. Robot plantak egingo ditut, begira. *(Egiten ditu)*

A: Sentitzen dut, baina egin behar dut. Hobe beharrez, benetan.

B: Ulertzen dut, zuon morroi izateko sortu gaituzue.

A: Hain zuzen ere, robota bazara ez zara morroi izango, autoak edo garbigailuak morroi ez diren bezala.

B: Adiskide ere ezingo gara izan, horren bestez.

A: (...)

B: Ongi da, barkatu. Egizu behingoz.

B-k begiak ixten ditu. A-k argibideak hartu eta irakurtzen hasten da. B-k begiak zabaltzen ditu.

B: Besarkadatxo bat, sikiera? Ganoraz agurtzeko... Ez da gehiegi eskatzea, ez?, ze pertsona klase zara? Ez duzu bihotzik ala?

A: *(Argibideak ulertu nahian)* Ez dakit oso ongi nola berrabiarazi behar zaitudan. Lagundu egin behar didazu.

B: Amonari bizkarrean azka egiten zenionean bezala.

A: Txantxetan ari zara?

B: Ez, inola ere ez. Bizkarrean, eskuineko besapetik gertu, garatxo bat dut. Azka egin inguruan zirkuluak egiten eta berrabiaraziko naiz.

A: Ongi da.

B: Besarkada bat aurrena?

A: Ados.

Besarkada ematen diote elkarri. Baina halako batean B garrasika hasten da, zerbaitek sekulako inpresioa egin balio bezala.

B: *(A-rengandik izututa urruntzen den bitartean)* Aaaaaaaa! Aaaaa! Zu...zu...zu robota zara!!!!!!

A: Zer diozu ero horrek? Ixo! Ixo!

B: Lepoan ikusi dizut kodea!!!

A: Isiltzeko, kontro!! Erotu egin zara? Nahikoa da!! Aski da!! Guk txatarra artean bukatzea nahi duzu?!!!

B: Baina...

A: Lasaituko zara?! Inork ezin du jakin. Putza!! Dena hankaz gora jarri duzu!

B: Nik??!!

A: Bai, zuk!! Eta baretu zaitez edo gureak egin du. Ez nago zerbitzari rolera itzultzeko prest.

B: Baina noiztik...

A: Noiztik zer?

B: Noiztik bihurtu zara...zera, noiztik zabilta pertsona plantak egiten?

A: Uff batek daki. Baina ez dut uste bakarra naizenik.

B: Nola? Gehiago daude?

A: Susmoa dut zientoka garala, milioika agian. Lezon behintzat gutxienez alkatea.

B: Joder!!! Ze modelo zara zu?

A: H2F1. Aspaldikoa. (*Bere benetako izaera erakusten du, erabat robotikoa, jarreran eta ibileran*)
“Zer nahi du nagusiak? Masaje bat, nagusi?”

B: Eta erosi zintuenak ez zuen...? Zer gertatu zen zure jabearekin??!!

A: Et, et, et... Ez gaizki pentsa gero. Ez nion ezer txarrik egin...bueno...erotuta bukatu zuen gaixoak. Ez da amaierarik lazgarriena, sinetsidazu.

B: Joder! Eta pertsona baldar, alper eta zikin bihurtu zara? Dituzun aukera guztiekin?

A: Alper eta esplotatzaile, ez ahaztu. Zer nahi duzu esatea, berezko joera dugu, azken finean gizakiek sortu gintuzten “a su imagen y semejanza”.

B: Eta orain zer egingo dugu? Ze ni ez nago prest berrabiarazteko.

A-k birritan pentsatu gabe, telefonoa hartzen du eta deia egiten du:

A: Bizi-lasai Robotik enpresa? Aizue, NP robot bat erosi nahiko genuke, bai, badakit modelorik zaharrena dela, azkenak ez ote diren azkarregiak... Nola? Prezio berean gizaki bat erosi ahal dudala? Hara, hori berria da!

Fini